



Bertako produktuen erakuslehoio bihurtu dira egun batez Asteasu eta Ibarra

AZOKA ▶ Artisau lanak, abereak eta barazkiak izan ziren, besteak beste, ikusgai bi herrietan

SARIA ▶ Amezketako Asentxio Karrerak irabazi du Tolosaldeko VIII. Ezti Txapelketa, Ibarra ▶ 6



Asteasun, artisauek egun osoan jarri zituzten ikusgai eta salgai beren produktuan, plazan. I. GARCIA



J. ASTIBIA

Jon Rekondo leizarra ere finalera sailkatu da

TOLOSALDEA ▶ 3. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa irabazi du; Jexux Mari Mujika eta Joseba Otaegi ere ariko dira finalean ▶ 7



Iriarte
GERRUNTZE • LENZERIE

Korreo kalea, 7 • **TOLOSA**

**AZKEN
ESKAINNTZA**

**%50 - %60
%70eko
BEHERAPENA**

ZATOK URTXINTXA ESKOLARA!

- AISIALDIKO REGIRALEA
- ZUZENDARIA
- ASTESURU BATEKO MONOGRAFIKOAK
- DINAMIZATZAILE SOZIOKULTURALA
- SOZIOLOGIA AISIALDIAN
(Jelketa, beste hizberri...)



Tel.: 943 270 033 www.aisia.net

LEHIAKETA ▶

Tolargi-Tolosagasa argazki lehiaketa abian, sari ugarirekin

Tolosa gaitzat hartuta argazkirik ederrena ateratzen duenak urtebetez dohainik izango du etxeko gasa eta argia

NEREA LIZARTZA

«Tolosako edozein argazki da balekoa lehiaketarako; haurrei Inauterietan ateratakoa, menditik ateratakoa, etxeko balkoitik ikusten dena...». Baldintza hori jarri dute Tolargik eta Tolosagasa antolatatu berri duten argazki lehiaketarako. Tolosak aurten 750 urte egiten dituela aitzakitzat hartuta, bi enpresa horiek elkarlanean lehiaketa hau jarri berri dute abian.

Banatuak dituzten sariak ez dira nolanhakoak izango; izan ere, lehenengo sailkatzen denak urtebetez argia eta gasa dohainik izango ditu bere etxean. Gainera, finalistei ere banatuak dizkiete hainbat sari, hala

nola, Tolargik banatutako saria tokatuz gero, urtebetez argia dohainik izatea lortuko dute sei lagunek. Tolosagasa eman duen saria tokatuz gero, berriz, urtebetez gasa dohainik izango da. Gainera, irabazle ateratzen den argazkia 2006 urterako Tolargik eta Tolosagasa ateratzen duten egutegi-ko azala ere izango da.

Lehiaketan parte hartzeko argazkia Tolargiko bulegora (Pablo Gorosabel, 34 behea) edo Tolosagasa (Aroste-gieta, 18 behea) eraman daiteke. Argazkia entregatzeko formatuak hiru izan daitezke, paperean, CDan edota kamera digitalean. Gai honen gainean informazio gehiago nahi izanez

SARIAK ▶

Honako sariok banatuak dituzte Tolargik eta Tolosagasa antolatutako lehiaketan:

LEHEN SARIA
750. Urteurrena saria. Urtebetez argia eta gasa dohainik.

FINALISTAK
6 Tolargi sari. Urtebetez argia dohainik.
6 Tolosagasa sari. Urtebetez gasa dohainik.

gero, www.tolosa750.net. web orria kontsulta daiteke.

HEZKUNTZA ▶

Galera kognitiboak dituztenekin lan egiteko

Dementziak edo alzheimerria duten adineko pertsonekin lan egiteko ikastaroak, prest

N. LIZARTZA

Dezente dira heldutzean etortzen diren buruko gaixotasunak; hala ere, arruntenak dementziak edota alzheimerria izan ohi dira. Gaixotasun horiek dituzten adineko pertsonekin lan egiteko boluntarioak prestatzeko ikastaroa abian jarri dute urrirako. Ikastaroa bost egunetako da, eta egun bakoitzean bost orduko eskolak izango dira.

Ikastaro labor honetan gaixotasun kognitiboak zer diren xehetasunez azalduko da. Gainera, gaitz hauek dituztenekin egunerokotasunean izan behar den harremanaz gain, nolako zaintza eman behar zaie ere erakutsiko diete ikastaroen parte hartzen dutenei.

Gipuzkoako Foru Aldundia-ren Ekimen Sozialerako Pla-

na ematen dutenentzat ikastaroa dohainik izango da. Ikastaroan parte hartzen dutenen erosotasunerako, ikasle kopurua mugatua izango da. Beraz, gehienez hogeit hamar pertsona taldeak izango dira.

Izarne Lizaso Elgarresta hizlariak prestatuko ditu ikastaroan parte hartzen duten ikasleak, galera kognitiboak dituzten adinekoen zaintzarako.

Ikastaroa urriaren 17tik 21a bitartean, asteleheneetik ostiralera, izango da. Tolosako Euskal Herria plazan, Zahar Etxea izandako lekuan, emanango dituzte eskola hauek, 17:00etatik 20:00etara, zehazki. Ahal bezain laster izena ematea komeni dela azaldu dute antolatzaileek, bestela lekuak bete egingo baitira.

TELEBISTA ▶



'Vaya Semanita'-ko eszenen grabazioa Tolosan

Euskal Telebistako bigarren katean ostegunero ematen duten *Vaya Semanita* telesaila Tolosan aritu ziren grabatzen atzo. Eszena gubxi ziren arren, goizean goiz hasi eta arratsaldea bitartean iraun zuen grabaketak. Arrakasta ikaragarria lortu du telesail honek azken bi urteotan. Datorren ostegunean Tolosa ikusgai izango da telesailan. HITZA

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.
Tabernaria. Neska euskalduna

behar da taberna batean 4 ordu lan egiteko. 675 70 11 78ra deitu.

GALDUTAKOAK

Argazki kamara. Argazki kamara digitala galdu dute pasa den irailaren 18an Alkizatik Emiorako tartean.

Aurkitu duenak dei dezala 685 76 10 51 telefono zenbakira.

SALGAI

Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. Interesatuak deitu 615 755 762ra, arratsaldeetan.

GIZARTEA ▶

Guatemalara lanera liburutegia sortu asmoz

Tolosar bat Guatemalan dago pasa den ikasturtean hasitako proiektu bat jarraitzeko

N. LIZARTZA

Pasa den ikasturtean karrerako praktikak zirela eta, Guatemalara joan zen Ainhoa Gorbantes gazte tolosarra, hainbat lagunekin. Guatemala iparraldeko komunitate indigena batean egon ziren; zehazki, Santa Maria Tzejá-n. Herri hartako eskolan praktikak amaitu, eta Tolosara etortzeko garia iritsi zitzaizenean, Guatemalara itzuliko zirela erabaki zuten.

Nahi hau zela eta, praktikak egin zituzten ikastetxeko irakasle, guraso eta haurrekin bilera bat egin zuten, liburutegi bat sortzea helburu zutela. Modu honetan, hango hezkuntzari bultzada bat emango ziotela pentsatzen baitzuten.

Proiektu honekin jarraitu asmoz, pasa den hilaren 19an itzuli ziren berriro Guatemalara gazte tolosarra eta harekin praktikak egin zituzten gaine-

rakoak. Guatemalan sortu berri duten liburutegirako «liburu sorta handia» eraman zutela hemendik adierazi zuten gazteek. Hala ere, proiektuarekin taxuz aurrera jarraitzeko «ia sosik gabe» daudela ere aitortu dute.

Hainbat udaletxetan eta erakundetan aurkeztu dute abian jarri berri duten proiektua, baina leku guztietan diru laguntzak ukatu ostean, beste diru iturri batzuen bila hasi beharrean aurkitu direla adierazi dute tolosarrak eta bere bidelagunek.

Beraz, norbaitek proiektu hau aurrera ateratzen ekonomikoki lagundu nahi izanez gero, 0044 8 3 044.0.02324.9 Euskadiko Kutxako kontu korronte zenbakian sartu dezake. Aportaziorik txikiena ere handia izango dela esan dute proiektuaren sustatzaileek; beraz, laguntzera animatu nahi dute jende guztia.

KULTURA ▶

Askotariko kultur tailerrak aukeran, ikasturte berrirako

Antzerkia, baleta, dantza garaikidea, egurra lantzea, ehoziri lana eta bainika, pintura eta marrazketa, eskulanak eta zeramika eskainiko ditu Kultur Etxeak

NOELIA LATABURU

2005-06 ikasturtearen hasiera-ekin bat eginez, Kultur Etxeak urtero eskaintzen dituen kultur tailerrak abian jarriko ditu aurki. Bere aukeren berri eman dute dagoeneko, eta izena emateko zerrendak ere ireki dituzte; iaz ikasle izan zirenentzat etzi arte, ostirala, daude zabalik zerrendak. Aurten lehen aldiz ikastaro hauek parte hartu nahi dutenek, berriz, hil honen 26tik aurrera izango dute aukera izena emateko, irailaren 30a bitarte, Kultur Etxeko bulegoetan.

Askotariko kultur ekitaldiak landuko dituzte ikasturtean zehar, denentzat egokitu daitekeen ordutegi zabalarekin. Halaber, adin guztietako jendeari zuzendurikoak izango dira, heldu, gazte zein haurtxoentzat. Urte guztirako ordaindu beharko diren tarifak ere zehaztu dituzte jadanik. Antzerkiko tailerrerako 127,95 euro ordaindu beharko da; baletan izen ematen dutenek 104,80 euro ordainduko dute —puntuako hiru taldeek izan ezik, izan ere, hauek 28,50 euroko tarifa izango dute—; dantza garaikidekoek 143,30 euro ordainduko dute; egurra lantzeko tailerreak, ehoziri lana eta bainika eta helduen pintura eta marrazketa tailerretan kopuru bera izango da, 143,30 euro, alegia. Pintura eta eskulanen bi ikastaroak —6-10 urte bitartekoak eta 10-14 urte arte-

KULTUR TAILERRAK ▶

| Ikastaroa | Adina | Ordutegiak | Egunak |
|--------------------------|---------------------------|-------------|------------------------|
| Antzerkia | Helduak | 19:30-21:30 | Astelehena, asteazkena |
| Baleta | 4 urte, Kultur Etxea | 17:30-18:30 | Astearte, osteguna |
| | 5 urte, Kultur Etxea | 17:30-18:30 | Astelehena, asteazkena |
| | 6 urte, Kultur Etxea | 18:30-19:30 | Astearte, osteguna |
| | 7 urte, Kultur Etxea | 18:30-19:30 | Astelehena, asteazkena |
| | 8 urte, Gorosabel | 17:15-18:15 | Astearte, osteguna |
| | 9 urte, Gorosabel | 17:15-18:15 | Astelehena, asteazkena |
| | 10 urte, Gorosabel | 18:15-19:15 | Astearte, osteguna |
| | 11 urte, Gorosabel | 18:15-19:15 | Astelehena, asteazkena |
| | 12-13 urte (A), Gorosabel | 19:15-20:15 | Astelehena, asteazkena |
| | 12-13 urte (B), Gorosabel | 19:15-20:15 | Astearte, osteguna |
| | Aurreratua, Gorosabel | 20:15-21:45 | Astelehena, asteazkena |
| | Puntak 1, Gorosabel | 17:30-18:30 | Ostirala |
| | Puntak 2, Gorosabel | 18:30-19:30 | Ostirala |
| | Puntak 3, Gorosabel | 19:30-20:30 | Ostirala |
| Dantza Garaikidea | Helduak, Gorosabel | 20:15-21:45 | Astearte, osteguna |
| Egurra lantzea | Helduak | 15:00-17:00 | Astearte, osteguna |
| Ehoziri lana eta bainika | Helduak | 16:00-20:00 | Asteazkena |
| Pintura/marrazketa | Helduak | 10:30-12:30 | Astelehena, asteazkena |
| | | 10:30-12:30 | Astearte, osteguna |
| | | 15:30-17:30 | Astelehena, asteazkena |
| | | 15:30-17:30 | Astearte, osteguna |
| | | 18:30-20:30 | Astelehena, asteazkena |
| | | 18:30-20:30 | Astearte, osteguna |
| Pintura/eskulanak | 6-10 urte | 17:30-18:30 | Astelehena, asteazkena |
| Pintura/eskulanak | 10-14 urte | 17:30-18:30 | Astearte, osteguna |
| Zeramika | Helduak | 10:30-12:30 | Astearte, asteazkena |
| | | 18:30-20:30 | Astelehena, asteazkena |

koek— 104,80 euroko tarifa ordaindu beharko dute. Azkenik, zeramika lantzeko ikastaroe-tan parte hartzen dutenek 143,30 euroko diru kopurua izango dute ordaintzeko.

Aldaketak urte berrirako

Aurreko urteetan arrakastatsuak izan ohi dira ikastaro-

hauek, eta jende andanak ematen du izena. Baletarena ez da salbuespena, eta aurten hamalau talde osatuko dituzte. Hauen artean berrikuntzak izan dira, izan ere, bi talde berri sortu dituzte; batetik, aurreratuenak —14 urte gorakoek osatua— eta puntako hiru, bestetik. Hauek guztiak Kultur Etxean eta Gorosabelen landu-

ko dira, asteke egun ezberdinetan.

Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Kultur Etxera jo daiteke 09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara, aste guztian —ostiraletan, goizez bakarrik—, 943 67 03 83 telefono zenbakira hots eginez edota www.tolosakoudala.net webgunean.

GIZARTEA ▶

San Cosmeko eguneko zentro berria ireki dute

Aste osoan zabalik dago eta hamar plaza ditu; Aldundiak lagundu du proiektuan

ERREDAKZIOA

Tolosako San Cosme eta San Damian gerontologiko zentroa zerbitzu berri bat ematen hasi da, eguneko laguntza, hain zuzen ere. Eguneko zentro berri honek hamar plaza ditu, eta aste osoan dago zabalik. Hamar plaza Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eginiko itunaren ondorio dira, Diputatuaren Kontseiluak Gizarte Politikarako Departamentuak zentroarekin zuzen hitzarmenaren aldaketa onartu ondoren. Foru Aldundiak zentro berri horretarako 20.656,61 euro xedatuko ditu 2005eko azken lauhilekoan.

GIZARTEA ▶

‘Jarri sasoiak korrika’ liburuaren aurkezpena

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak *Jarri sasoiak korrika* liburuaren aurkez-tuko du bihar, 19:00etan, Usabal kiroldegian. Bertan izango dira Tolosako hainbat korrikalari, besteak beste.

iragarki laburrak ▶



Aduna. 608m2ko pabilioa alokairuan, garabi zubiarekin, bulegoak bertan.
Albiztur. Berritzeko dagoen baserria solairu bakoitzak 200 m2-koa. 35.000 m2 dituen lursail propioarekin.
Anoeta. Estreinatzeko dagoen duplex ebenezko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, terraza eta garajea aukeran.
Asteasu. 1.050 m2-ko bi solairuko eta 250 m2-ko solairu arte duen pabilioa salgai edo alokeran. Mota guztietako tresnaz eta hobekuntzekin hornitua.
Beasain. 45 m2 erabilgarriko

etxebizitza eta lokal komertziala salgai.
Berrobi. 50 m2-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.
Berastegi. 100 m2-ko bi solairuko borda salgai, moldatu beharrean dagoena, 75.000 m2 dituen lur-saila, 35 eta 50 urte dituzten laritz pinuarekin.
Bidania. Azken bi etxe abikiak salgai, 160 m2 dagoeneko eraikiak daude.
Donostia. Saguesen, 70 m2-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin.
Lasarte. Hirugarren solairuan, 65 m2 erabilgarriko etxebizitza salgai

Oztaran kalean. Kanpoaldera ikuspegi.
Lizartza. Eraikuntza berrikoak diren eta 350 m2-tik hasita, 14.000 m2 pabilioi salgai.
Segura. Eraikuntza prozesuan dauden 14 etxe abiki salgai, 297.500 eurotik aurrera.
Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m2 dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.
Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskitan, 110 m2-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera eta, eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia.
Tolosa. Belate pasealekua, 4.

solairuko etxebizitza, 70 m2-koa. Kanpoaldera, igogailua eta trastelekuarekin.
Tolosa. Apataerrekian, lehenengo solairuan etxebizitza eta bigarren solairuan duplex-a. Berritua. Garajea eta lur-saila propioak ditu.
Tolosa. Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko apartamenduak, 65 m2 erabilgarri.
Tolosa. Zumalakarregi kalean, hirugarren solairuan berriturik dauden bi etxebizitza daude salgai.
Tolosa. Etxebizitza gehiago ditugu aukeran alokairuan. Informazio pertsonalizatua lortzeko, gure bulegoetan.

VILLABONA ▶

Eresargi Ttipik
haur abeslariak
behar ditu

Ikasturte honetan Eresargi Ttipi abesbatzak bere eskaintza zabaldu du, eta hementik aurrera 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek parte hartu ahal izango dute abesbatza horretan. Talde txikitik banatuta eta astean bi entsegu eginez hainbat gauza ikasiko dituzte: Euskal Herriko eta atzerriko abesti tradizional eta modernoak, bakoitzaren ahotsa nola erabili eta nola zaindu eta baita gorputzeko mugimenduen koordinaketa ere, hainbat ekintzen artean. Izen-ematea ostiralean izango da, hilaren 23a, 17:30etik 19:00etara, Kultur Etxean.

ANOETA ▶

Tutorearen bisita
izango da bihar
KZgunean

Anoetako KZgunea itxita egongo da bihar goizean. Arratsaldean tutorea joango da, 16:00etatik 20:00etara. Tarte horretan *Banaketa zerrrendak* izeneko mintegia emango du.

IRURA ▶

Larunbateko haur
bazkarirako izen-
ematea zabalik

Festen baitan larunbatean egingo duten haur bazkarirako gaur eta bihar eman behar da izena. Horretarako, liburutegira jo behar da, 17:00etik 19:00etara. Bestalde, ostiraleko buruhandi txikien zozketa honela suertatu da: *Txakurra*, Arkaitz Ziganda; *Oiloa*, Mikel Lejardi; *Txanogorritxo*, Eneko Ziganda; *Biboteduna*, Nora Iñurríta; *Polizia*, Felix Santano; eta *Txapel Berdea*, Beñat Sainz.

ALKIZA ▶ GIZARTEA

‘Oilategitik’ herriko
urtekariaren bosgarren
alea argitaratu dute

Oilategitik Kultur Elkarteak ateratzen duen aldizkariaren gai nagusia Antonio Zubiaurre alkate ohiari eskaini diote

IMANOL GARCIA

Alkizako Oilategitik Kultur Elkarteak *Oilategitik* herri urtekaria atera berri du. Bosgarren alea da aurtengoa eta besteak ez bezala, koloretan atera dute. 600 ale argitaratu dituzte eta herritarren artean banatzeaz gain, hainbat liburutegietara bidali dute.

Aldizkaria sortzeko osatu zen, batez ere, Oilategitik Kultur Elkarteak. Alkizako eta Foru Aldundiko diru laguntza dute aldizkaria aurrera ateratzeko. «Gustatuko litzaziguke herriko jende gehiago inguratzea, baina hamar bat lagun biltzen gara aldizkaria egiteko», azaldu dio Hrtzari Joxean Zubiaurre elkarte kideak eta *Oilategitik* diseinatzen eta maketatzen ari zuten denak. «Elkarteko kide bakoitzak berre artikulua prestatzen du. Bestalde, Udalak eta herriko elkarteek ere berea idazten dute».

Aldizkaria prestatzeko lehenengo bilera urtarrilean egin ohi dute elkarteek. «Norberak pentsatuta izaten du zeri buruz egingo duen artikulua», dio Zubiarrek. «Hitz egiten joaten gara eta maiatza ondoren hilean behin elkartzen gara, pixkanaka argazkiak eta informazioa biltzen joateko». Eta aldizkaria osatu ondoren, herriko festetako argitaratu ohi dute *Oilategitik*.

Gai ugari

Orain gutxi hil zen Antonio Zubiaurre alkate ohiari buruz da bosgarren alearen gai nagusia.



Joxean Zubiaurre, aldizkaria eskuan, Alkizako plazan. I. GARCIA

Zubiaurre beraren bustoa azaltzen da aldizkariaren azalean. Beste gai nagusi bat Alkizako toponimia mapa da. Lau aletan banatu dute lana, eta aurtengoa bigarren zatia da. «Herriko baserri, etxe, lursail eta abar ondo erakutsi nahi ditugu mapa honekin», dio Joxean Zubiaurrek. Ale ezberdinetan jarraipena duen beste atal bat herriko baserri buruzkoa da. Sei baserri ateratzen dituzte eta argazkiak gain, baserriaren historiari buruzko testua ere agertzen da. Bestalde, historian zehar herriko pertsonaia ospetsuei buruzko artikulua sortari ekin diote. Hainbat elkarrizketa eta artikulua ere argitaratu dituzte alkizar ezagunen inguruan.

Arrakasta duen sail bat argazkiak da. Alde batetik, Alkizako argazi zaharrak erakusten dira. Aurreko urtean jaitaioak ere beren tarte izaten



Oilategitik-en azala. HITZA

dute. Herrira bizitzera joan direnak ezagutzeko aukera ere izaten du irakurleak. Eta, azkenik, urteko erreposao egiten da argazkien bidez.

Aldizkariako edukiak interneten ikusteko aukera ere badago, www.oilategitik.net helbidetan.

TOLOSA ▶

‘Aupa
Etxebeste!’
filma
Zinemaldian

Tolosan grabatzen aritu ziren: Nafarroako zubian eta Arriaran gasolindegian

ERREDAKZIOA

Aupa Etxebeste! euskal filma etzi estreinatuko da areto komertzialetan. Baina aurretik, hau da, bihar bertan, ikusgai izango da Donostiako Zinemaldian. Filma honetan Tolosak badu bere protagonismo txikia, bi eszena grabatu baitziren herrian: bat Nafarroako zubian eta bestea Arriaran gasolindegian. Gauze grabatu zituzten, orain urtebete inguru.

Gaur, berriz, saria jasoko du filmak Zinemaldian, Euskal Zinemaren Egunean. Urteko ekoizpen ausarteneri *Ibaia* saria jasoko du.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

- ▶ Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzarano autobus: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

OGI-GOXO

OKINDEGIA eta GOZOTEGIA

ALEGIA ▶ JAIK



Larunbateko krosekoko parte-hartzaileak, abiatu aurretik irteera puntuan. JULEN GOIKOETXEA

Beste behin ere, jai giroa izan da nagusi Kalebeheran

Ekitaldiz beteriko asteburuaz gozatzeko aukera izan da bertan; jaiak parkera eramateak «eragin positiboa» izan du

JULEN GOIKOETXEA

Jai giroan murgildurik igaro dute asteburua Alegian. Kalebeherako jaiak ospatu ziren ostegunetik igandera, eta askorentzat ez zen atsedenerako denbora askorik egon. Osteguneko zine emanaldi lasaiak, ostiraleko festa goseari eman zion txanda. Irazustabarrena anaiek irabazi zuten patata tortila txapelketaren ondoren, asteburuari hasiera ona emateko, egunsentia bidali zituen etxera aurrez Eugenio eta Aitziberrekin nahikoa dantza egin eta koplak ugari bota zituztenak.

Larunbatean goiz hasi zen eguna bezperan berandu etxeratu zirenentzat. Eguerdian jokatu zen krosak gazteenen saioa eta gautxorien ajea agerian utzi zituen. Hala ere, «inoizko parte-hartzerik han-

diena izan zen», antolatzaileen esanetan. Guztietan azkarrena Aitor Gutierrez izan zen, Martin Lanpreren eta Iker Zubeldiaren aurretik. Arratsalde partean, haur jolasak izan ziren. Ume mordoak elkartu zen arratsaldea jolasean pasatzeko asmotan. Ondoren, pala txapelketa jokatu zen parkean. Kanporaketen ostean, Aritz eta Txanpio saikatu ziren igandeko finale-rako. Gaueko zahagiardoari, bertso saioak eman zion jarraipena. «Esoain, Sukia eta Iriarte bertsolariak ederki aritu ziren, baina Iker Iriarte herritarrak aparteko saioa burutu zuen». Eguna amaitzeko, Irmaren eta Amatsen doinuek alaitu zuten gaua.

Igandeari txakolin dastaketa jendetsuarekin eman zioten hasiera. Ondoren, urteroko herri bazkaria egin zuten parke-

an. Paella bikain batez gozatzeko aukera izan zuten bertan. Gosea baretu ostean, pilota finalak izan ziren ikusgai. Gazte-txoenek etorkizuna ziurtaturik dagoela erakutsi zuten jokaturiko partidetan. Jarraian, Aritz eta Txanpio kantxaratu ziren pala txapelketako finalari ekitera. Aritzek lortu zuen garai-pena ikusleek girotu zuten partida batean. Iluntzean zahagiardoa izan zen, eta festei amaiera emateko mus txapelketa egin zuten parkean.

Jaien balantzea egiterako orduan, positibotzat jo dituzte antolatzaileek: «Kokalekua aldatzeko on egin die jaiak. Izan ere, ostiralean izan ezik, eguraldia lagun izan dugu eta jende mordoak bildu da parkera ekintzak ikustera. Beraz, arrakastaz beteak izan dira 2005eko Kalebeherako jaiak».

ALEGIA ▶

Euskal dantza ikastaroa dantza taldearen eskutik

Alegiako dantza taldeak euskal dantza ikastaroa antolatu du ikasturte berriari begira. 6 urtetik gorakoentzako prestaturik dauden saioak asteazkenetan izango dira, 16:30ean, urriaren 5ean hasita. Bertan izena eman nahi duenak hilaren 30 arte du aukera ondoko telefono zenbakietara deituz: 699 79 08 74 (Nati) edo 616 64 84 13 (Marta).

ALEGIA ▶

Eskulan ikastaroa Kultur Etxeak eskainita

Eskulan ikastaroa antolatu du Kultur Etxeak. Udaberriaren eskaini zuten ikastaroari jarraipena ematea du helburu berriak. 60 orduko iraupena izango du, eta urriaren hasi eta maiatzean amaituko da. Izena emateko epea atzo zabaldu zuten, eta hilaren 30a bitartean zabalik izango da, Kultur Etxean. Orduetgia eta egunak taldeak sortzen diren heinean osatuko dira; baina goizean, arratsaldean eta gaualdean egiteko aukera zabalik dago. Edozein informazio eskuratu nahi duenak Kultur Etxera deitu behar du, 943 65 46 98 zenbakira.

LEABURU-GAZTELU ▶

'Belardo belar metaren ibilerak' ipuin kontaketa

Iñaki Martiarenaren eskutik, *Belardo belar metaren ibilerak* marrazkien bitartez ipuin kontaketak izango dira gaur 17:30ean Leaburrun, eta 18:30ean Gaztelun.

AMEZKETA ▶

Amaitu da Joxean Tolosa txapelketaren XVI. edizioa

Iturrioz, Larrañaga eta Arruti izan dira txapelkunak maila ezberdinetan

J. GOIKOETXEA

Igandean egun handia izan zuten Amezketan. Urtero legez, Joxean Tolosaren torneoko finalen egunarekin batera, jende ugari inguratu zen Larrunari pilotalekura etorkizunean zer esan ugari eman dezaketen pilotariak ekinean ikustera. Hiru hilabete luzez kanporaketa mordoak jokatu ostean, sei pilotari kantxaratu ziren igande arratsaldean.

Kadeteetan, Iturriozek eta Peñasek jokatu zuten finala. Bi pilotariak merezimentu osoz zeuden finalean, baina batek bakarrik lortu zuen egindako lanaren fruitua. Azkenean Iturriozek jantzi zuen txapela, Peñasi 18 eta 13 irabazita.

Gazte mailako finalean, Larrañagak erraz irabazi zion urduritasunak jota aritu zen Gorrotxategiri. Azken emaitza 18 eta 6koa izan zen, baina finalekoa ez zen txapelketan zehar ikusi zen Gorrotxategi izan, beti ere, Larrañagari meriturik kendu gabe.

Azkenik, maila nagusiko finala jokatu zen. Bertan, Arrutik ez zion aukerarik eman Jauregiri, eta hasieratik geratu zen garbi nor zen indartsuena. Azkenean, 18 eta 10ekoarekin Arrutik jantzi zuen txapela.

Beste urte batez, antolatzaileen lana goraiatzeko da. Ez da lan erraza 272 pilotarirekin txapelketa antolatzea, baina berriro lana ondo egiten badakitela erakutsi dute Zazpi-Iturri elkartekoek. Bejondeiela eta jarrai dezatela urte askoan pilotazaleen gozamenerako txapelketa antolatzeko.

NORA BIDALI

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZaren egoitzara

Oinarriak www.tolosaldeko-hitza.info webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leizako Arakindegia jatetxean afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismaticoak.

Argazkien erakusketa egingo du, Tolosako ALDEZAHARRA elkarteak



bidali zure argazkiak!

argazki
hitza lehiaketa

ASTEASU-IBARRA ▶ GIZARTEA



Asteasu. Artisauek nola egiten duten lan ikusi ahal izan zuten azokan izan zirenek. IMANOL GARCIA

Bertako produktuen erakuslehoiak

Abereak, barazkiak, artisauak... ikustera jende ugari joan da Asteasun eta Ibarrian eginiko azoketara

INIGO TERRADILLOS

Igandean azoka bereziak egin zituzten eskualdeko bi herrietan, Asteasun eta Ibarrian, hain zuzen, eta eguraldia lagun jende ugari bildu zen.

Ibarra-koaren kasuan, aurten seigarren urtea bete du Hauspoa Kultur Elkarteak antolatzen duen *Bertakoa ezagutzekoa!* azokak. Euskal Herria kalean zehar hainbat postu jarri zituzten, besteak beste, barazkiak, artelanak, garai bateko lanabesak eta loreak ikusteko aukera izan zen. Abereak ere bere lekua izan zuten azokan, izan ere, herriko 12 baserrietan hezi eta zaindutako behiak, txekorak, bigak, behorak, astoak, ardiak... izan ziren ikusgai Beko-biden, eta animatu ziren gaztetxoek zaldien gainera igotzeko parada ere izan zuten. Horretaz gain, Ezpeletatik etorritako Ezpela dantza taldeak eskainitako dantza saioak go-

zatu ahal izan zuten gerturatu zirenek.

Asteasun, berriz, Azoka Eguna izan zuten igandean. Goizean ikusgai izan ziren pilotalekuaren aldameneko zelaian herriko baserrietako abereak; zaldiak, behiak (esnetakoak eta haragitarakoak), *poney*-ak, ardiak... izan ziren. Bestalde, egun osoan herriko artisauak egon ziren plazan euren lanak erakusten; eta pilotalekuan, berriz, denetarik izan zen ikusteko eta erosteko moduan: aipatzekoak, barazkiak, eskuz eginiko zapatak, animaliak, gaztak eta erlegintzarekin zerikusia duten produktuak.

EZTI LEHIAKETA ▶

Ibarra-ko *Bertakoa ezagutzekoa!* azokaren baitan Tolosaldeko VIII. Ezti Txapelketa burutu zen igandean. Denera, 11 parte-hartzaile izan zituen, eta «guztiak ere oso onak» izan zirela azaldu dute antolatzaileek.

IRABAZLEAK

1. Arentxio Karrera (Amezketeta).
2. Simon Nazabal (Elduain).
3. Bautista Otaegi (Ibarra).



Ibarra. Jende ugari joan zen bertakoak ezagutzera. I. TERRADILLOS



Asteasu. Bertako baserrietako abere ugari izan ziren ikusgai. I. GARCIA



Ibarra. Hainbat argazkiren erakusketa ikusteko aukera izan zen. I. T.

IBARRA ▶ KIROLAK



IV. Xake Txapelketa burutu dute

I. Terradillos ▶ Igandean burutu zen IV. Ibarra Herria Xake Txapelketa herrian. Guztira, sei taldek hartu zuten parte, eta txapelketa amaituta Errenterriko Fomento-Beraun taldea izan zen irabazlea. Hauen atzetik geratu zen Ibarra-ko Xake Elkartea. Batzuek ohiko xake txapelketan jokatzeko aukera izan zuten bitartean, gaztetxoek ederki igaro zuten lurrean jarritako xake erraldoien jolasean. I. TERRADILLOS

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. Larunbatetik igandera Carlos Peña tolosarrak Usabal kiroldogian 24 orduz bizkarrez igeri eginda Guinness errekorra ezarri nahi du. Lortuko al du? Eman zure botoa eskualdeko egunkariaren web orrian.

AIZKORA ▶

Jon Rekondo Euskal Herriko 3. Mailako Aizkorako finalean da

Kanporaketa saioan onena izan da; Telletxea eta Iriarte ere sailkatu dira, Lasarekin, Mujikarekin eta Otaegirekin aritzeko

JAIONE ASTIBIA

Jon Rekondo leitzarra Euskal Herriko 3. Mailako Aizkora Txapelketako finalerako sailkatu zen igandean jokatu zuen kanporaketan. Zazpi aizkolari lehiatu ziren, eta denetan denborarik onena eginez eguneko irabazle atara zen, gainera. Finala hurrengo hilaren 7an jokatuko dute, Agurainen.

Egun borobila eta lan bikaina eginda, beraz, Rekondo Euskal Herriko finala jokatzera doa. 2. kanporaketa saioa zen igandean Navaridasen, Arabako Errioxan, mahats-bilketako festa egunean, jokatu zena. Rekondorekin batera, Telletxea (Beintza-Labaiengoa), Iriarte,

SAILKAPENA ▶

EUSKAL HERRIKO 3. MAILAKO TXAPELKETA 2. kanporaketa saioa.

| Izena | |
|-------------------------|-------|
| 1. Rekondo | 8,57 |
| 2. Telletxea | 9,26 |
| 3. Iriarte | 9,34 |
| 4. Teilebea | 9,39 |
| 5. Llanos | 12,09 |
| 6. Pikabea | 13,19 |
| 7. Ruiz de Aretxabaleta | 15,38 |

Telletxea (oiartzuarra), Llanos, Pikabea eta Ruiz de Aretxabaleta aritu ziren lanean, launa kanaerdikotara, zehazki. Bi sailletan aritu ziren lanean aizkolarik. Lehendabizikoan, Rekon-

do bera, Pikabea eta Ruiz de Aretxabaleta aritu ziren. Leitzarra erraz samar gailendu zen, 8 minutu eta 57 segundoko denbora eginez, tandako hurrenari 4 minutu eta gehiagoko aldea kenduz. Lanak estu jarri ziren gainerakoentzat, sailkatzekotan Rekondoren denboraren inguruan ibili beharra baitzuten. Azkenean, hestu ibillita baina aurreneko hirurak 37 segunduren tarte motzean bukatu zituzten lanak: leitzarren ondoren, 29 segundora bukatu zituen beren enborrak Telletxeak eta beste 8ra Iriartek. Telletxea oiartzuarra larri ibili zen, baina hirugarrenak baino 5 segundu eskas gehiagotatik, kanpoan gelditu behar izan zuen. Horrela, Rekondo bera, Telletxea eta Iriarte sailkatu ziren, honetakoan. Aurreneko kanporaketan sailkatutakoekin, Lasa, Mujika ibartarra eta Otaegi zizurkildararekin jokatu dute, orain, finala.

«Gustura» zegoen leitzar aizkolari gaztea sailkapena irabaziz lortu zuelako. Finalari begira zioen guztiak ere arerio gorrak izanen direla: «Sailkapenekoan denak 9 minuturen bueltan ibili gara, oso alde gutxiarekin, eta horrek azkeneko saioan alde handirik ez lukeela egon behar esanahi du», argitu zion HITZARI atzokoan.

Dena den, begi bat lanean eta bestea Lasari eta Mujikari begira ariko omen da, zioenez, finalean izanen den aizkolari gazteena izanen den honek. 20 urte ditu Jon Rekondo leitzarrak.

ARESO ▶ GIZARTEA

Euskal Herriko lehiatik Nazioartekora, Argi

Igandean jokatu da Oñatin, eta hantxe izanen da Antonio Alustiza aresoarra ere

J. ASTIBIA

Pasa den igandean jokatu zen Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa eta heldu denean izanen da Nazioartekoa. Bietan hantxe izan da eta izanen da Argi, Antonio Alustizaren aginduetara.

Berriz izan zen Alustiza, aurrekoan. 11 txakur aritu ziren lanean, euren jabeen aginduak ahalik eta ongien eta urduritasunak uzten zien heinean betez. Eta uste guztiek huts egin zutelarik, Enrike Mendiguren jotzen baitzen favoritotzat, Zisak, Nafarretoko Jon Zuazoren artzain txakurak, egin zuen lanik onena eta aurtengo Euskal Herriko

Txapela bere jabearentzat izan zen. Zuazo Arabako txapeladunorde ere bada.

Bitartean, Argiren lana zuzenduz, eginahalak egin zituen Alustizak, baina saririk gabe itzuli ziren etxera. Edozein moduz, Nafarroako Txapela irabazi izanak Nazioarteko Txapelketan parte hartzeko eskubidea ere badakar, eta hantxe izanen da aresoarra, igande honetan, ohikoa denez, Oñatin jokatu den sarietara. Hemen Euskal Herriko herrialdeetako txapeladunek ez ezik, Pirinio aldeko beste nazioetako artzainek ere parte hartzen dute. Han du, beraz, beste saiakera egiteko aresoarrak.

LEITZA ▶ KIROLAK

Kirol eskaintza zabala egin dute kiroldegian

Ohiko zerbitzuez gain, mota desberdineko ikastaroak antolatuko asmoa dituzte

J. ASTIBIA

Ikasturtea hasi berri den honetan, kiroldegian ere hainbat kirol mota egiteko aukera eskaintzekotan dira. Ohiko gimnasio, sauna, frontoi tiki, squash eta kantxako kirolez gain, hainbat ikastaro egiteko aukera eskaini dute.

Horrela aerobika, step-a edota pilates-a egin nahiko lukeenak, asteko bi saio eta ordutegi desberdinak dituzte aukeran, goiz, nahiz arratsalde; eta, kasu honetan, gazteentzat

talde apartekoa antolatuko luke, muskulazio gidatuarekin bezala. Gizezkoentzat bideratuta, prestakuntza fisikoko saioak ere badira. Gorputzaren zainketarako ez ezik, ordea, bestelako kirola egiteko aukera ere izanen da, haurrentzat gimnastika eta karatea, esaterako, edota multikirolak denentzat. Saltsa ikastaroa ere egiteko asmoa badute; erlaxaziorako, yoga bezala.

Hauek guztiak, bazkide izan edo ez, parte-hartzearen araberaino omen dituzte.



Jokoan arerio badira ere, lankidetzat da nagusi kirolarien artean. Rekondorekin bulken, Iriarte. JAIONE ASTIBIA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Lauburu K.E.-k 1987, 1988, 1989 eta 1990 urteetan jaiotakoak probetara deitu ditu, 17:30ean, kiroldegian.
Tolosa. Gipuzkoako Kluben Arteko Pilota Txapelketako partida. Aurrera Saiaz (Renobales-Zapirain) eta Lazkao 1, senior mailan. 21:00etan, Beotibarren.
Tolosa. 1955ean jaio eta aurten 50 urte betetzen dituztenen festa ari dira prestatzen azaroaren 12rako. Informazioa: 650 69 35 40 (Santi Beloso), 630 90 80 45 (Joaquin Odriozola) eta 669 82 88 18 (Angel Garcia) zembakietan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Mertxe Etxeberriaren margolanak. Hilaren bukaera arte, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte, Lanbroa tabernan.
Tolosa. Rosa Maria Ruizen margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

MUGIKORTASUN ASTEA

Tolosa. Mugikortasun Mahaiaren bilera: Mugikortasun Plana eta bidegorri sarea aurkeztuko dute. 19:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK


Gaur
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

IRRATIA

Txolarre (107.5; 101.2 FM)
 11:00. 14:00ak arte, *Tolosaldeko Ahotsa*. Eguraldia, Hitzaren errepasoa, albisteak, oharrak...
 11:45. Irurako Ikastolako umeak etorriko zaizkigu bisitan, Mugikortasun Iraunkorren Astearen barruan antolatutako azaltzera.
 12:15. Agenda.
 12:30. *Zortziko Aldrebesa*.
 Bertsolaritari eskaintzen diogun tartea. Gaur, Bertsolari Txapelketa Nagusiari jarriko diogu arreta berezia.
 13:00. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.
 13:15. Lehiaketa eta disko eskainiak.
 19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa* magazinaren errepikapena.
 22:00-23:00. *Street Noise* musika saioa.
 ▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Norvegia eta Brasil

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Norvegian eta Brasilen jasotako argazkiak ere bidali dituzte irakurleek lehiaketara; etzi amaituko da epea, anima zaitetz!



HARDANGERFJORDEN ▶

Iban Zendoia (Azpeitia).

Norvegian batera eta bestera ibili da abuztuan Iban Zendoia azpeitiarra, eta han ateratako irudiak bidali ditu argazki lehiaketara. «Herri politik eta, batez ere, paraje ederrak ditu Norvegiak. Mendiak, glaziarak, fiordoak, ur-jauziak... Txunditurik, aho zabalik uzten gintuen etengabe naturak. Argazki honetan Hardangerfjorden ageri da».

MORRO DE SAO PAULO ▶

Joseba Aranburu (Tolosa).

Brasil aldera egin du bidaia Joseba Aranburu tolosarrak udako oporretan, eta hango argazki politik bidali dizkigu. Halaxe dio honakoari buruz: «Argazkia Morro de Sao Paulo, Brasilen, ateratakoa da. Asfaltatu gabe dagoen irla bat da, non gurpildun ibilgailu bakarrak karretilak diren. Argazkikoa bertako haur bat da maldan gora, helduen lanbidea imitatzen. Karretila hauek ziren Morroko taxiak!».



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Alaitz Uzkudun. Astelehenean, hilak 19, 5 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama, Miriam eta Amaieren partetik.



ZORIONAK
 Adur Larrinaga Gordo. Gaur urtebete. Zorionak familiaren partetik.

HITZA,
 zorion agurren tartea
 HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 beheko TOLOSA Udaletxeko bulegoa LEITZA
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

ARMA eta GIDA
baimenak
 • Zitarik gabe
 • Zure tramitazioa azkartzen dugu
 • Donostiarako joan-etorriak ekiditzen ditugu
 • Etxean jasoko duzu baimena R.P.S 401/04
'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA
 San Inazio 2 (Muñazabal Altzarien ondoan) • TOLOSA
15:30etik 19:00etara